d) Garantizar, en el ámbito de la Administración de Justicia, el ejercicio de los derechos reconocidos a los ciudadanos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera e impulsar el proceso de euskaldunización de la Administración de Justicia.

e) Promover la protección, defensa y desarrollo de todos los Derechos Humanos para toda la ciudadanía vasca.

f) Coordinar la ejecución de las medidas dispuestas por la Autoridad Judicial, especialmente respecto a las personas menores infractoras.

g) Planificar el ejercicio de las competencias autonómicas en materia de Instituciones y Establecimientos penitenciarios.

h) Colaborar con la Vicepresidencia del Gobierno en la elaboración y propuesta de las actuaciones encaminadas a la conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y Especial del País Vasco.

2.— De la Viceconsejería de Justicia dependen las siguientes Direcciones:

a) Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.

b) Dirección de Derechos Humanos.

c) Dirección de Recursos Humanos.

d) Dirección de Ejecución Penal.

**12. artikulua.**— Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

1.— Dekretu honetako 6. artikuluan oro har ematen zaizkion egitekoek aparte, honako hauek dagozkio Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari:

a) Justizia Ministerioarekin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Auzitegi Nagusiarekin, eta gainerako organo judizialekin, fiskaltzekin, Autonomia Erkidegoetako organo eskumendunekin eta Justiziarekin lotuta dauden Estatuko nahiz beste herrialde batzuetako gainerako instituzio eta erakundeekin zein abokatuen, prokuradoreen eta idazkari judizialen ordezkari-tza-antolakundeekin, harreman egonkorra izatea eta koordinatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan destinatuta dauden epaile, magistratu, fiskal, idazkari judizial eta abokatuentzako prestakuntza-programak kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko Zuzenbideari buruzko prestakuntzan arreta berezia jarritz.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan destinatuta dauden magistratu, epaile eta fiskalek Euskal Autonomia Erkidegoan gelditu eta jarraitu ahal izateko baldintzak finkatzen ahalegintzea.

d) Bulego eta Zerbitzu Judizialen, Fiskaltzen eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Antolaketa Plana egin, proposatu eta ezartzea, horren jarduerak koordinatzea eta beharrezkoak diren bitarteko materialez hornitzea.

e) Autonomia Erkidegoan dauden Laguntza Zuzeneko Unitateak, Prozesu Zerbitzu Erkideak eta Laguntzako Bulego Erkideak diseinatu eta antolatzea, eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen, Lantalde Psikosozial Judizialen, Peritu Judizialen eta Euskara Itzultzaileen Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua gidatzea.

f) Bake epaitegiei laguntzeko programak kudeatzea eta Bake Justiziaren gaian ekintzak sustatzea.

g) Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren egitekoak sustatzea eta behar duen laguntza tekniko eta administratiboa ematea.

h) Justizia Administrazioa hobetu eta modernizatzeko programak egin eta betearaztea.

i) Justizia Administrazioari dagokion Informatika Plana egitea, eta plan horren ondorioz dagozkion informatika-zerbitzuak ematea.

j) Hizkuntzaren normalkuntza bultzatzea, hizkera juridikoaren bateratzea eta euskara agirietan ezartzea garatuz.

**Artículo 12.**— Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.

1.— A la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Mantener la relación estable y la coordinación con el Ministerio de Justicia, el Consejo General del Poder Judicial, Tribunal Superior de Justicia y demás Órganos Judiciales, Fiscalías, Órganos competentes e Instituciones de Justicia de otras Comunidades Autónomas, del Estado o de otros países, así como con las organizaciones representativas de los Abogados, Procuradores y Secretarios Judiciales.

b) Programar la formación dirigida a Jueces, Magistrados, Fiscales y Secretarios Judiciales con destino en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como a los Abogados, prestando especial atención a la formación en el Derecho propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Procurar el establecimiento de condiciones que favorezcan la estabilidad y permanencia en la Comunidad Autónoma de los Magistrados, Jueces y Fiscales con destino en la misma.

d) Elaborar, proponer e implantar el Plan Organizativo de las Oficinas y Servicios Judiciales, Fiscalías e Instituto Vasco de Medicina Legal, coordinar sus actividades y proveer los medios y recursos materiales que requieran.

e) Diseñar y organizar las Unidades de Apoyo Directo, los Servicios Comunes Procesales y las Oficinas Comunes de Apoyo radicadas en la Comunidad Autónoma y dirigir la organización y funcionamiento del Instituto Vasco de Medicina Legal, los Equipos Psicosociales Judiciales, los Peritos Judiciales y el Servicio de Traductores de euskera.

f) Gestionar programas de ayudas a los Juzgados de Paz e impulsar actuaciones en materia de Justicia de Paz.

g) Impulsar las funciones del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia, prestando la asistencia técnica y administrativa necesaria.

h) Elaborar y ejecutar programas y planes de mejora y modernización de la Administración de Justicia.

i) Elaborar el Plan Informático correspondiente a la Administración de Justicia, prestando los servicios informáticos derivados del referido Plan.

j) Impulsar la normalización lingüística en la Administración de Justicia, desarrollando la unificación del lenguaje jurídico y la implantación documental del euskera.

k) Justizia Administrazioaren langileen euskalduntze-alfabetatzea antolatu eta kudeatzea, eta Justizia Administrazioaren talde ez transferituen euskalduntze-programa eta hitzarmenak planifikatu eta kudeatzea.

l) Justizia Administrazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomiko guztiak planifikatu eta eskuratzea.

m) Euskal Autonomia Erkidegoan organo eta zerbitzu judizial berriak sortzeko beharra kudeatzea.

n) Justizia Administrazioaren eraikinek leku, instalazio eta ekipamendu-gaietan dituzten erabilera-baldintzak eta beharrak aztertzea.

o) Organo eta zerbitzu judizialen proiektuak egin eta gainbegiratzea, eta obra eta instalazioen planen garapen teknikoa gidatu eta kontrolatzea.

p) Obren egiaztagiriaren ikuskatzailetza teknikoa eta kontrola egitea, eta egitasmoen hasierako onarpena eta zuzenketaren formulazioa eta konprobazioa egitea.

q) Espetxeetako baliabide materialak eta obra plana planifikatzea.

r) Sailaren mende dauden Justizia Administrazioaren eraikin eta instalazio guztien mantentze planak egin eta gainbegiratzea.

s) Organo eta Zerbitzu Judizialen segurtasuna koordinatzea, eta horietako larrialdi-plana sortu edota gainbegiratzea.

t) Eraentzako Antolapide Teknikoak (EAT) zuzendu, antolatu eta gainbegiratzea, Sailburuordetzako beste zuzendaritzekin koordinatuz.

2.- Eraentzako Antolapide Teknikoak (EAT) izeneko administrazio-unitateak lurralde historiko bakoitzeko hiriburu-justizia jauregietan daude, eta Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende egongo dira organo-mailaketari dagokionez; horien egitekoen eskuduntza duen Justizia Sailburuordetzako zuzendaritzaren mende, bestalde, egitekoen dagokienez.

Egiteko hauek betetzen dituzte:

– Sailburuordetzako zuzendaritza guztien eta organo eta zerbitzu judizialen arteko etengabeko lotura egitea.

– Bere lurraldeko organo eta zerbitzu judizialen beharrak zaintzeko laguntza eskaintzea.

k) Organizar y gestionar la euskaldunización y alfabetización del personal al servicio de la Administración de Justicia y planificar y desarrollar los programas de euskaldunización de los colectivos no transferidos relacionados con la Administración de Justicia.

l) Realizar la planificación y provisión de todos los medios materiales y económicos necesarios para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

m) Planificar las necesidades de creación de nuevos Órganos y Servicios Judiciales con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

n) Estudiar las condiciones de uso y proveer las necesidades en materia de espacio, instalaciones y equipamientos de los edificios de la Administración de Justicia.

o) Elaborar y supervisar los proyectos de los Órganos y Servicios Judiciales y dirigir y controlar el desarrollo técnico de los Planes de obras e instalaciones.

p) Ejercer la inspección técnica y control de las certificaciones de obras, así como las funciones de aprobación inicial de los Proyectos, formulación y comprobación del replanteo.

q) Planificar los recursos materiales y el Plan de Obras en materia de Instituciones y Establecimientos Penitenciarios.

r) Elaborar y supervisar la ejecución de los Planes de mantenimiento de todos los edificios e instalaciones al servicio de la Administración de Justicia dependientes del Departamento.

s) Coordinar la seguridad de los Órganos y Servicios Judiciales y de sus instalaciones, así como elaborar y supervisar los Planes de Emergencia de los mismos.

t) Planificar, dirigir, organizar y supervisar las Unidades Técnicas de Gestión / Eraentzarako Antolapide Teknikoak, EAT, en coordinación con las demás Direcciones de la Viceconsejería.

2.- Las Unidades Técnicas de Gestión / Eraentzarako Antolapide Teknikoak, EAT, ubicadas en los Palacios de Justicia radicados en cada capital de los Territorios Históricos, se configuran como Servicios Territoriales descentralizados de la Viceconsejería de Justicia y dependen orgánicamente de la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia y funcionalmente de la Dirección de la Viceconsejería de Justicia que resulte competente por la materia.

Estas Unidades ejercen las funciones de:

– Enlace permanente entre todas las Direcciones de la Viceconsejería y los Órganos y Servicios Judiciales.

– Atención a las necesidades de los Órganos y Servicios Judiciales de su ámbito territorial.

– Bulego eta zerbitzu erkideen antolaketa-plana ezartzeko laguntza zuzena ematea.

**13. artikulua.**– Giza Eskubideen Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikuluan oro har Giza Eskubideen Zuzendaritzari ematen zaizkion egitekoen aparte, honako hauek dagozkio zuzendaritza horri:

a) Giza Eskubide indibidualak eta kolektiboak sustatzeko, laguntzeko eta babesteko ekintza-politika propio bat finkatzea, horretarako beharrezkoak diren baldintzak bultzatuz eta eragozpenak kenduz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren funtsezko eskubi-deak bermatu eta gauzatu ahal izateko.

b) Estatuak izenpetu eta sendetsitako nazioarteko hitzarmen eta itunetan eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean errotuta dauden printzipioak errespetatu daitezela zaintzea, Jaurlaritzako beste sailekin batera, eta izenpetu eta berronetsi daitezkeenei buruzko ekimenak proposatzea.

c) Giza eskubideei buruzko publizitate eta zabalkunde kanpainak egitea, Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuta.

d) Giza eskubideak garatu eta sustatzen dituzten ekintzak sustatzea, bai dirulaguntzen programen bitartez, bai alor horretako ikerketa eta prestakuntza beketarako deia eginez.

e) Giza Eskubideen alorrean diharduten elkarte, fundazio, gobernuz kanpoko erakunde eta gizarte mugimenduekiko lankidetzaren harremanak indartzea.

f) Nazioarteko erakundeekin harreman iraunkorrak izateko bideak irekitzea, hala nola, Giza Eskubideen Europako Auzitegiarekin, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Batzordearekin eta Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi-Komisarioarekin, kanpora begira; eta barrura begira, Arartekoarekin eta Estatuak nahiz beste autonomia erkidego batzuetako herriaren defendatzaileekin. Xede hori lortu ahal izateko, entitate horiekin programa komunetan lankide izango da eta kongresuak, hitzaldiak eta jardunaldiak antolatuko ditu aipatu erakundeekin. Hori guztiori Jaurlaritzaren Lehendakariaren eta Lehendakariordetzaren eskumenei kalterik egiteke burutuko da.

g) Gatazkak giza legez bideratzeko ekimenak sustatzea, unibertsitateekin, elkarteekin, fundazioekin, gobernuz kanpoko erakundeekin eta giza eskubideen arloan lan egiten duten gizarte mugimenduekin lankidetzan.

h) Giza Eskubideen Euskal Behatokiaren jarduerak bultzatzea.

– Apoyo directo en orden a la implantación del Plan organizativo de Oficinas y Servicios Comunes.

**Artículo 13.**– Dirección de Derechos Humanos.

A la Dirección de Derechos Humanos le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Establecer una política de actuación propia en materia de promoción, apoyo y protección de los Derechos Humanos individuales y colectivos, promoviendo las condiciones necesarias y removiendo los obstáculos en orden a la garantía y efectividad de los derechos fundamentales de y para los ciudadanos y las ciudadanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Velar, en colaboración con los otros Departamentos del Gobierno, por el respeto de los principios consagrados en la Declaración Universal de Derechos Humanos y de los Convenios y Pactos Internacionales firmados y ratificados por el Estado, proponiendo iniciativas para la firma y ratificación de los que sean susceptibles de ello.

c) Impulsar la realización de campañas de publicidad y divulgación en materia de Derechos Humanos, bajo la coordinación de la Dirección de Servicios.

d) Fomentar actividades que desarrollen y promuevan los Derechos Humanos, bien a través de programas subvencionales o bien convocando, a tal efecto, becas de investigación y formación en esta materia.

e) Potenciar las relaciones de colaboración con Asociaciones, Fundaciones, Organizaciones no gubernamentales y movimientos sociales que trabajen en el área de los Derechos Humanos.

f) Establecer cauces permanentes de relación con Organismos Internacionales, como el Tribunal Europeo de Derechos Humanos y la Comisión de Derechos Humanos del Consejo de Europa, el Alto Comisionado para los Derechos Humanos de la Organización de las Naciones Unidas, en el orden exterior, y en el interno, con el Ararteko, el Defensor del Pueblo del Estado y de otras Comunidades Autónomas, colaborando en programas comunes y participando en congresos, conferencias y jornadas con los Organismos citados. Todo ello sin perjuicio de las competencias que corresponden a la Presidencia y Vicepresidencia del Gobierno.

g) Promover iniciativas de humanización de conflictos en colaboración con Universidades, Asociaciones, Fundaciones, Organizaciones no gubernamentales y movimientos sociales que trabajen en el área de los Derechos Humanos.

h) Impulsar las actividades del Observatorio Vasco de Derechos Humanos.

i) Bakerako eta Bizikidetzarako hezkuntzako programak garatzea.

**14. artikulua.**– Giza Baliabideen Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikuluan oro har Giza Baliabideen Zuzendaritzari ematen zaizkion egitekoen aparte, honako hauek dagozkio zuzendaritza horri:

a) Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloan dagozkion eskumenak erabiltzea, hala administrazio-zuzenbidearen peko langileen arloan nola lan-zuzenbidearen pekoen arloan dagozkienak.

b) Organo eta bulego judizialak, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea barne, langilez hornitzea sustatzea, beren egitekoak bete ditzaten errazteko. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko kidegoetako funtzionarioak adskribituko dira edo lan erregimeneko kontratuak egingo.

c) Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeari dagozkion egitekoak egiteko beharrezkoa den langileen politika planifikatu eta bultzatzea.

d) Justizia Administrazioko langileen prestakuntza politika diseinatzea, lanpostuaren beharren arabera.

e) Zerbitzuko ikuskaritza orokor eta langileen erreistroari buruz dagozkion eskumenak.

f) Justizia Administrazioko langileen ordainketa-politika eta dagokien aurreikuspen soziala gidatu eta kudeatzea.

g) Langileen alorreko legeria bereziaren betetzea zaintzea, horretarako behar diren neurriak hartuz eta, behar bada, proposatuz, eta indarrean den araudiak esleitzen dion beste edozein.

h) Langileen Zerrendaren bitartez, langileen antolamendua eta horiek bulego judizialen egitura osatzen duten unitateetan banatzeko modua organo eskudunari proposatzea, eta horren ondoren, hori kudeatu eta hornitzea.

i) Organo eskudunari plantilla organikoa edo lanpostuen zerrendak proposatzea, baita horren ondorengo kudeaketa eta horniketa ere.

j) Giza Baliabideen gaitako ekimen eta egitasmoe-tatik sortzen diren neurri arrazionalizatzaileak.

k) Sindikatuekin, komiteekin edo Justizia Administrazioan administrazio eta lan zuzenbidearen menpe darduten langileen beste ordezkapen organo batzuekin

i) Desarrollar programas de educación para la Paz y la Convivencia.

**Artículo 14.**– Dirección de Recursos Humanos.

A la Dirección de Recursos Humanos le corresponden, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Ejercer las competencias que con respecto al personal al servicio de la Administración de Justicia sujeto a derecho administrativo y laboral, en su caso, correspondan a la Comunidad Autónoma, de acuerdo con la ordenación establecida y siempre que no estuvieren atribuidas a otros órganos.

b) Promover la dotación de personal de apoyo a los órganos y a las oficinas judiciales, incluido el Instituto Vasco de Medicina Legal, para facilitar el desempeño de sus funciones mediante la contratación en régimen laboral y/o adscripción de personal funcionario de los distintos Cuerpos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Planificar e impulsar la política de personal necesaria para el desempeño de las funciones que corresponden al Instituto Vasco de Medicina Legal.

d) Diseñar y planificar la política de formación y perfeccionamiento del personal al servicio de la Administración de Justicia en consonancia con las necesidades del puesto de trabajo.

e) Ejercer las competencias que correspondan en relación con el Registro de personal y la inspección general del servicio.

f) Dirigir y gestionar la política retributiva del personal al servicio de la Administración de Justicia y la previsión social que al mismo corresponda.

g) Cuidar del cumplimiento de la legislación específica en materia de personal, adoptando, o en su caso, proponiendo las medidas precisas para ello, y ejercer cualesquiera otras funciones que le atribuya la normativa vigente.

h) Proponer al órgano competente la ordenación del personal y su integración en las distintas unidades que conforman la estructura de las oficinas judiciales, a través de la Relación de Puestos de Trabajo y su posterior gestión y provisión.

i) Proponer al órgano competente la plantilla orgánica o las relaciones de puestos de trabajo y su posterior gestión y provisión.

j) Implantar las medidas racionalizadoras emanadas de las iniciativas y proyectos en materia de Recursos Humanos elaborados por el Departamento.

k) Ejercer la representación que corresponda, en su caso, al Departamento en las conversaciones y negociaciones que se establezcan con Centrales Sindicales, co-

egiten diren elkarrizketetan eta negoziaketetan Sailari dagokion ordezkari gitea, beste organo batzuei esleitutako eskumenei kalterik egiteke.

l) Diziiplina espedientei eta zigor-ezarpenei hasiera ematea eta izapidetzea.

m) Langile horien lan-baldintzak hobetzeko ekintzak bultzatzea, eta, hala behar bada, gizarte zerbitzuak kudeatzea, indarrean diren arauak jarraituz.

n) Justizia Administrazioan Administrazio eta lan zuzenbidearen menpe diharduten langileak, lanean daudenentz jagoetako sistemak zuzendu eta kudeatzea.

o) Lan-arriskuei aurrea hartzeari dagokionez aplikatu beharreko neurriak proposatzea, eta Justizia Administrazioa langilei laguntzeko berezko Prebentzio Zerbitzua zuzendu eta kudeatzea.

p) Oro har, Giza Baliabideen politika garatu, kontrolatu eta betearaztea, salaren jarraibideen arabera.

**15. artikulua.**— Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikuluan oro har Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari ematen zaizkion egitekoak aparte, honako hauek dagozkio zuzendaritza horri:

a) Helduen jurisdikzio penaleko organoei hainbat zigor —bereziki espetxeaz besteko zigorrak eta segurtasun neurriak— betearazten eta baldintzapeko zigoretendurak aplikatzen laguntzeko bitartekoak eskuratzeara.

b) Entitate eta elkarteei diru-laguntzak emateko programak garatzea espetxearen esparruan, askatasuna galdu duten pertsonak gizarteratzeko eta birgaitzeko jardueren eta gainerako hezkuntza edo aisialdiko jardueren gainean, behar bezala daitezen zainduz.

c) Sailarekin arlo horretan lan egiten duten entitateekiko harremanak sustatzea, espetxe-zerbitzuen hobekuntza lortzeko, gaian eskumenak dituzten erakundeekin Lankidetzarako Esparru Hitzarmena garatzeko, atxilotuari gizarte-laguntza eta orientazioa emateko programak sustatzeko eta espetheen arloan Jaurlaritzaren jardura guztiak koordinatzeko.

d) Espetxeei buruzko eta espetxe instituzio, establezimendu eta zerbitzuen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko legediak betetzeak dakartzkion egitekoak betetzea, arlo honi buruz finkatuko den ordenamendu orokorraren barruan.

mités u otros órganos de representación del personal al servicio de la Administración de Justicia sujeto a derecho administrativo y laboral, sin perjuicio de las competencias atribuidas a otros órganos.

l) La incoación y tramitación de expedientes disciplinarios, y la imposición de sanciones.

m) Promover acciones y, en su caso, gestionar servicios de carácter social destinados a mejorar las condiciones de trabajo de dicho personal, conforme a la normativa vigente.

n) Dirigir y gestionar los sistemas de control de presencia del personal al servicio de la Administración de Justicia sujeto a derecho administrativo y laboral.

o) Proponer las medidas a aplicar en materia de prevención de riesgos laborales, así como dirigir y gestionar el Servicio de Prevención propio que atiende al personal al servicio de la Administración de Justicia.

p) En general, desarrollar, controlar y ejecutar la política de Recursos Humanos, de conformidad a las directrices establecidas por el Departamento.

**Artículo 15.**— Dirección de Ejecución Penal.

A la Dirección de Ejecución Penal le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Proveer los medios necesarios para colaborar y asistir a los órganos de la jurisdicción penal de adultos en la ejecución de determinadas penas y, especialmente, los relativos a cumplimiento alternativos y medidas de seguridad, así como en las suspensiones de condena con imposición de condiciones.

b) Desarrollar los programas de ayudas económicas a entidades y asociaciones en relación a actividades de ayuda a la reinserción y rehabilitación de personas privadas de libertad y otras actividades educativas o recreativas en el ámbito penitenciario, velando por su ejecución y debido cumplimiento.

c) Potenciar las relaciones con las Entidades que colaboran con el Departamento en esta materia a fin de lograr la mejora de los servicios penitenciarios, desarrollar el Convenio Marco de Cooperación con las Instituciones competentes en la materia, impulsar programas de asistencia y orientación social al detenido, y coordinar todas las actuaciones del Gobierno en el ámbito penitenciario.

d) Ejercer las funciones derivadas de la ejecución de la legislación penitenciaria y las propias de la organización y funcionamiento de las Instituciones, Establecimientos y Servicios Penitenciarios, en el marco de la ordenación general que en esta materia se establezca.



e) Autonomia Erkidegoko zigor-betearazpeneko zerbitzuen politika aztertu eta diseinatzea, espetxeetakoak eta errehabilitaziokoak barne.

f) Espetxeen gainean eta askatasuna galtzea ez dakarten bestelako zigorren betearazpenen gainean Erkidegoak dituen eskumenak gauzatzea.

g) Benetako tutoretza judizialerako eta doako justiziarako eskubideak bermatzea ofizio txandaren eta atxilotuari abokatuen laguntza eskaintzearen inguruan.

h) Adingabeko arau-hausleen gaietan jarduerak diseinatu eta planifikatzea, gazte justiziako planak bete-araziz eta ebaluatuz.

i) Adingabeei ezarritako neurriak betearazteari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko adingabekoen epaitegieki eta fiskaltzek plazaratzen dituzten eskaerei erantzutea.

j) Adingabeen jurisdikzioaren barruan, ingurune irekiko neurriak sustatzea —haien hezitzaile-alderdia sendotuz— eta gai horren inguruko bitartekotza, konponetze eta adiskidetzeko programak bultzatzea.

k) Barneratze-neurriak betetzeko ikastegiaren funtzionamendu egokia bermatzea.

l) Adingabeko arau-hausleen arloan, erakunde publiko zein pribatuekiko lankidetzak bermatu eta irauraraztea, bai prebentzioaren esparruan, bai neurri judizialak bete ondoko gizarterazteari dagokionez.

m) Justizia osagarri alternatiboaren sistemei —besteak beste, bitartekotza, arbitraia eta adiskidetze-prozedurei— arreta berezia ematea.

n) Biktimologiaren arloan jarduteko politikak bultzatu eta garatzea, delituaren biktimei laguntzeko zerbitzuak sustatuz.

V. KAPITULUA  
LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILBURUORDETZA

**16. artikulua.**— Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza.

1.— Dekretu honetako 5. artikuluan orokorrean ematen zaizkion eginkizunez gain, hauek dagozkio Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetzari:

a) Sektore publikoko politikak indartzea, enplegua sortzeko.

b) Enpleguaren alorrean, lan-harremanen marko autonomoan diharduten gizarte-eragileek hartutako akordioei laguntza ematea.

e) Estudiar y diseñar la política de servicios de ejecución penal, incluidos los penitenciarios, y de rehabilitación, propia de esta Comunidad Autónoma.

f) Ejercer las competencias autonómicas en materia de Instituciones y Establecimientos Penitenciarios, así como las correspondientes a la ejecución de otras penas no privativas de libertad.

g) Propiciar el ejercicio de los derechos a la tutela judicial efectiva y justicia gratuita en materia de turno de oficio y asistencia letrada a la persona detenida y/o presa.

h) Diseñar y planificar actuaciones en materia de menores infractores ejecutando y evaluando planes de justicia juvenil.

i) Atender las demandas que se planteen tanto desde los Juzgados de Menores como desde las Fiscalías de la Comunidad Autónoma del País Vasco relacionadas con la ejecución de las medidas dispuestas sobre personas menores.

j) Impulsar, dentro de la jurisdicción de menores, las medidas en medio abierto fortaleciendo su carácter educativo, y los programas de mediación, reparación y conciliación en esta materia.

k) Velar por el adecuado funcionamiento de los centros educativos para el cumplimiento de las medidas de internamiento.

l) Mantener y fomentar cauces de colaboración con Instituciones Públicas y privadas en materia de personas menores infractoras, tanto en el ámbito de la prevención como en el de la inserción social posterior al cumplimiento de las medidas judiciales.

m) Prestar especial atención a los sistemas de justicia complementaria alternativa, como los procedimientos de mediación, arbitraje y conciliación.

n) Impulsar y desarrollar políticas de actuación en el campo de la victimología apoyando los servicios de asistencia a la víctima del delito.

CAPÍTULO V  
VICECONSEJERÍA DE TRABAJO Y  
SEGURIDAD SOCIAL

**Artículo 16.**— Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social:

1.— Corresponden a la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social, además de las funciones que con carácter general se le atribuyen en el artículo 5 del presente Decreto, las siguientes:

a) Reforzar las políticas del sector público a favor del empleo.

b) Apoyar los acuerdos alcanzados por los agentes sociales operantes en el marco autónomo de relaciones laborales en materia de empleo.

c) Enpresako langileen partaidetzan eta itunetan oinarritutako enpresa-kultura bultzatzea.

d) Gizarte-ekonomia eta kooperatibismoaren alorreko ekintzak sustatzea eta koordinatzea.

e) Lanaren antolamenduaren modernizazioa bultzatzea, formula malguen bidez, produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko eta enplegua sortzeko.

f) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren jarduera-eremuan Lanbide Heziketako Euskal Plana aplikatzea eta garatzea, hartu beharreko neurriak hartuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin koordinaturik.

g) Hobetuz, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa babestea eta Etengabeko Prestakuntzaren planifikazioan eta diseinuan laguntzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin koordinaturik.

h) Lanerako Prestakuntza planifikatzea eta diseinatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

i) Lan-arloan Informazioaren eta Ezagutzaren GIZARTEAREN garapenean Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari laguntzea, baita herritarrak teknologia berrietan prestatzean ere.

j) Lanerako lanbide heziketa, enpleguaren sustapen eta laneko bitartekaritzaren eskumenak gauzatzeko behar den planifikazioa egitea, Enplegurako Euskal Zerbitzu bakar bat, integrala eta integratua, diseinatu eta edukitzeko.

k) Diskriminazio positiborako mekanismoak jartzea, Euskadin langabezia, gainbehera eta bazterkeria gehien dauden alderdien alde eta lanean hasteko zailtasunak dituzten taldeen alde.

l) Jite ekintzailea sustatzea, norberak bere enplegua sortzeko ekimenak bultzatzea eta erantzukizun-hartze, lehiakortasun eta elkartasunean oinarritutako enpresaburu eta langileen kultura baten alde egitea.

m) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Ikuskatzaitzaren oinarriak jartzea eta jarduerak planifikatzea, EAEko administrazio publikoen, kooperatiben eta meategi, harrobi eta tunelen esparruetarako.

n) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak proposaturik, lan-arrikuaren prebentzioari dagokionez egindako arau-hausteengatik zigorrak ezartzea: zigorrak 90.151,82 euro eta 300.506,05 euro bitartekoak izango dira; eta lan-arloko legeak jasotako gainerako arau-hausteengatik eta oztopoengatik, berriz 30.050,61 euro eta 60.101,21 euro bitartekoak.

c) Impulsar una cultura empresarial basada en la concertación y la participación de los trabajadores y las trabajadoras en la empresa.

d) Promover y coordinar las actuaciones en materia de economía social y cooperativismo.

e) Fomentar la modernización de la organización del trabajo con fórmulas flexibles, con el fin de aumentar la productividad, la competitividad y la creación de empleo.

f) Desarrollar y aplicar el Plan Vasco de Formación Profesional en el ámbito de actuación del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, adoptando las medidas necesarias en coordinación con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

g) Apoyar a la Fundación Vasca para la Formación Continua Hobetuz y colaborar en la planificación y diseño de la Formación Continua, bajo la coordinación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

h) Planificar y diseñar la Formación Ocupacional en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

i) Colaborar con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo en el desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en el ámbito laboral, así como en la formación de la ciudadanía en las nuevas tecnologías.

j) Planificar el ejercicio de las competencias en materia de formación profesional ocupacional, la promoción de empleo y la intermediación laboral, para diseñar y disponer de un único Servicio Vasco de Empleo integral e integrado.

k) Establecer mecanismos de discriminación positiva a favor de las zonas de Euskadi que presentan mayores problemas de desempleo, declive y marginación, así como a favor de los colectivos con dificultades de inserción laboral.

l) Fomentar el espíritu emprendedor, impulsar las iniciativas de autoempleo y favorecer una cultura empresarial y laboral basada en la asunción de responsabilidades, la competitividad y la solidaridad.

m) Establecer las bases y planificar las actuaciones de la Inspección Vasca de Seguridad y Salud Laborales para los ámbitos de las administraciones públicas vascas, cooperativas y minas, canteras y túneles.

n) Imponer, a propuesta de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, o en su caso de la Inspección Vasca de Seguridad y Salud Laborales, sanciones por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales desde 90.151,82 euros hasta 300.506,05 euros, y por el resto de infracciones de la legislación laboral y actos de obstrucción desde 30.050,61 euros hasta 60.101,21 euros.

o) Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 140.5.b artikuluan aipatutako zigorrak ezartzea.

p) Gizarte Segurantzaren zuzendaritza, antolaketa eta administrazioa eta bere erregimen ekonomikoaren kudeaketa gainbegiratzea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen eskumenei kalterik egiteke.

q) Gizarte Segurantza eta Gizarte Aurreikuspeneko Borondatezko Erakundeen arloan jarduerak programatzea, azken kasu horretan Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen eskumenei kalterik gabe.

2.- Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetzaren mende zuzendaritza hauek daude:

- a) Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
- b) Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza.
- c) Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza.

**17. artikulua.**— Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikuluan orokorrean ematen zaizkion eginkizunez gain, honako hauek dagozkio Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzari:

a) Lan-harremani buruzko espedienteak lehen instantzian hartu, izapidetu eta erabakitzea, zuzenbidezko ordenamenduak gai horretan ematen dizkion ahalmen guztiez baliatuz.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko laneko jaien egutegi ofiziala egitea eta izapidetzea.

c) Enplegu-erregulazio espedienteak bere gain hartu, izapidetu eta erabakitzea, ekainaren 11ko 190/1985 Dekretuan agintzen denaren arabera, baldin eta espedienteen dagoen enpresak lurralde historiko batean baino gehiagotan baditu lantegiak.

d) Sindikatuen eta Elkarte Profesionalen Estatutuen gordailuari dagokion Bulego Publikoa zuzentzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

e) Bitartekaritza, arbitratze eta adiskidetze eginkizunak betetzea, indarrean dagoen zuzenbidezko ordenamenduak ematen dizkion ahalmen guztiez baliatuz, eta oro har, laneko gatazka kolektiboak bere gain hartu eta izapidetzea, gatazka horiek lurralde historiko baten baino gehiagotan gertatzen badira, betiere, Lan Harremanen Kontseiluaren baitan Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbideen arteko Akordioak (GEP) dituen betebeharrei kalterik egiteke.

f) Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroa kudeatzea, martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuan eta indarrean dagoen araudian agintzen denaren arabera, eta hitzarmen kolektiboak hedatzeko espedienteak izapidetzea.

o) Imponer las sanciones a las que se refiere el artículo 140.5.b de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi.

p) Supervisar la dirección, organización y administración de la Seguridad Social y la gestión del Régimen Económico de la misma, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

q) Programar las actuaciones en materia de Seguridad Social y Entidades de Previsión Social Voluntaria, sin perjuicio, en este último supuesto, de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.- Dependan de la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social las siguientes Direcciones:

- a) Dirección de Trabajo y Seguridad Social.
- b) Dirección de Empleo y Formación.
- c) Dirección de Economía Social.

**Artículo 17.**— Dirección de Trabajo y Seguridad Social.

A la Dirección de Trabajo y Seguridad Social le corresponde, además de las funciones que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Conocer, tramitar y resolver en primera instancia, los expedientes sobre relaciones de trabajo, ejerciendo todas las facultades atribuidas por el ordenamiento jurídico en esta materia.

b) Elaborar y tramitar el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Conocer, tramitar y resolver los expedientes de regulación de empleo en los términos previstos en el Decreto 190/1985, de 11 de junio, cuando la empresa afectada tenga centros de trabajo en más de un Territorio Histórico.

d) Dirigir la Oficina Pública correspondiente al depósito de los Estatutos de Organizaciones Sindicales y Asociaciones Profesionales en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

e) Ejercer las funciones de mediación, arbitraje y conciliación ejecutando todas las facultades atribuidas por el ordenamiento jurídico vigente y, en general, el conocimiento y tramitación, cuando excedan del ámbito de un Territorio Histórico, de los conflictos colectivos de trabajo, sin perjuicio de las funciones que correspondan al Preco en el seno del Consejo de Relaciones Laborales.

f) Gestionar el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, en los términos previstos en el Decreto 39/1981, de 2 de marzo, y demás normativa vigente, así como la tramitación de los expedientes de extensión de los Convenios Colectivos.

g) Sindikatu Hauteskunderen Bulego Publikoa zuzentzea, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskunderen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zen.

h) Greba egiteko eskubidea gauzatzen denean, komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak beteko direla bermatzeko xedapenen proposamena izapidetzea.

i) Lurralde ordezkariak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, ordezkariak horiek sailaren beste edozein zuzendaritzekiko dituzten menpetasun funtzionalerik kalterik egiteke.

j) Lurralde ordezkariak bere eskumeneko arloren batean hartutako ebazpenen aurka jarritako errekurtso arruntak erabakitzea.

k) Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren jarduerak antolatu eta zuzentzea EAeko administrazio publikoen, meategien, harrobien eta tunelen arloetan, azken kasu horien gainean Industria, Merkataritza eta Turismo sailak (meatzaritza-teknikaren eta industria-segurtasunaren gaitan) dituen eskumenak alde batera utzi gabe.

l) Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak proposatuta, 30.050,61 euro eta 90.151,81 euro bitarteko isunak jartzea, laneko arriskuei aurre egitearen alorrean legea hausten denean, eta 6.010,13 euro eta 30.050,60 euro bitartekoak, berriz, laneko legeak gainerako egoeretan hausten direnean eta oztopoak ipintzen direnean.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko batean baino gehiagotan lantegiak dituzten aldi baterako lan enpresen erregistroaz arduratzea, horiei baita administratiboa ematea eta enpresa horien gainean lan-agintariari esleitutako eskumenak betetzea.

n) Laneko osasunaren alorrean, Lan Agintaritzari dagozkion egitekoak betetzea, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari esleitutako eskumenerik kalterik egin gabe.

o) Enpresez besteko zerbitzu gisa jardun nahi duten erakunde espezializatuek egindako egiaztatze-eskabi-deak ezagutzea, izapidetzea eta ebatzea, baita prebentzio-sistemaren gainerako prestakuntza edo kontu-ikuskaritzako jarduerak garatu nahi dituzten pertsoneri eta erakunde espezializatuak buruzkoak ere; horretarako, egiaztatutako pertsonen edo erakundeek horren gaineko arauak zelan betetzen ari diren kontrolatuko dute.

p) Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren zerbitzuak zuzendu, antolatu eta administratzea.

g) Dirigir la Oficina Pública de Elecciones Sindicales, de conformidad con lo establecido en el Decreto 237/2000, de 28 de noviembre, por el que se crea en la Comunidad Autónoma de Euskadi la Oficina Pública, su Comité y la Inspección de Elecciones Sindicales.

h) Tramitar la propuesta de disposiciones para garantizar el mantenimiento de los servicios esenciales de la comunidad, con ocasión del ejercicio del derecho de huelga.

i) Dirigir, coordinar y supervisar las Delegaciones Territoriales, sin perjuicio de las dependencias funcionales de éstas respecto a cualesquiera otras Direcciones del Departamento en sus respectivas áreas competenciales.

j) Resolver los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por las Delegaciones Territoriales, en las áreas cuya competencia le corresponda.

k) Organizar y dirigir las actuaciones de la Inspección Vasca de Seguridad y Salud Laborales en los ámbitos de las Administraciones Públicas Vascas, cooperativas así como minas, canteras y túneles, sin perjuicio en estos últimos supuestos de las competencias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en materia de técnica minera y seguridad industrial.

l) Imponer, a propuesta de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social o, en su caso, de la Inspección Vasca de Seguridad y Salud Laborales, sanciones por infracciones en materia de prevención de riesgos laborales desde 30.050,61 euros hasta 90.151,81 euros, y por el resto de infracciones de la legislación laboral y actos de obstrucción desde 6.010,13 euros hasta 30.050,60 euros.

m) Gestionar el Registro de las empresas de trabajo temporal que posean centros de trabajo en varios Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca, conceder autorización administrativa y ejercer, respecto de las mismas, las competencias que se atribuyen a la Autoridad Laboral.

n) Ejercer las funciones que corresponden a la Autoridad Laboral en materia de seguridad y salud laboral, sin perjuicio de las competencias atribuidas a Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

o) Conocer, tramitar y resolver las solicitudes de acreditación de entidades especializadas que pretenden actuar como servicios de prevención ajenos a las empresas, así como las relativas a personas o entidades especializadas que pretendan desarrollar actividades formativas o de auditoría del sistema de prevención, realizando el control y seguimiento del cumplimiento de la normativa en esta materia por parte de las personas o entidades acreditadas.

p) Dirigir, organizar y administrar los servicios de la Seguridad Social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

q) Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa kudeatzea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen eskumenak kaltetu gabe.

r) Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren aurrekontuen aurreproiektuak prestatzen esku hartzea.

s) Gizarte Segurantzari buruzko araudia prestatzeko azterlana eta proposamena, eta horri buruzko txosten ekonomikoa eta aktuarialak egitea.

t) Gizarte Segurantzak Autonomia Erkidegoan dituen finantzaketa eta gastuari eragiten dieten neurriak ezagutu eta jakinaraztea.

u) Euskal Gizarte Segurantzaren zentro eta zerbitzuen jarduerak zuzendu, babestu eta ikuskatzea.

v) Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-aurreikuspen osagarriari dagokionez herri-politika orokorrak aztertzea, taxutzea eta proposatzea.

w) Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin batera, aurreikuspen sozialeko erakundeen gaineko xedapenen proiektuak proposatzea eta egitea.

x) Gizarte Aurreikuspeneko Borondatezko Erakundeen Erregistroa zuzentzea, antolatzea eta kudeatzea.

y) Gizarte Aurreikuspeneko Borondatezko Erakundeak sustatzeko eta garatzeko programak egitea eta kudeatzea.

z) Gizarte Aurreikuspeneko Borondatezko Erakundeen gaineko arauak betetzen direla kontrolatzea, babestea eta ikuskatzea.

**18. artikulua.**– Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza.

Dekretu honetako 6. artikulua orokorrean ematen dizkion eginkizunez gain, hauek dagozkio Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzari:

a) Enplegu eta prestakuntza gaietako arau-proposamenak egitea.

b) Enplegua eta prestakuntza sustatzeko politikak planifikatzea eta horren laguntza eta dirulaguntza programak kudeatu eta ebaluatzea.

c) Enplegu-plan orokor eta sektorialak egin eta bete daitezen sustatzea.

d) Euskal Enplegu Zerbitzua diseinatzea eta, hala dagokionean, Estatuko zerbitzu publikoarekiko lankidetzak ekintzak gauzatzea.

e) Enpresak sortzeko gogoia, norbere enplegua sortzeko ekimenak eta enpresak sortzeko espiritua sustatzea.

f) Lan merkatuaren joerak aztertu eta ebaluatzea.

q) Gestionar el régimen económico de la Seguridad Social, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

r) Participar en la elaboración de los anteproyectos de presupuestos de la Seguridad Social en la Comunidad Autónoma.

s) Estudiar y proponer la normativa en materia de Seguridad Social así como elaborar informes económicos y actuariales en relación con la misma.

t) Conocer y realizar estudios y propuestas sobre medidas que incidan sobre la financiación y el gasto de la Seguridad Social en la Comunidad Autónoma.

